

LIBURU aurrerapena >

Ez da gaua begietara etortzen

Musika ari du, edo euria ari du, musikaren euria edo euriaren musika, ezin jakin. Musika ibaia da, musika itsasoa da, musika zauri odoltsua da oroimenean eta negua da denboran.

Musika euria da laino artean.

Hitz batek alaitzen du eguna eta isiltasunak argitzen du gaua.

Norbait ari da tronpeta joka, norbait etorri da musikaren izartegira, argi egitera.

Musikak bere ibaiaren ispiluan jotzen du eta hegazti bihurtzen da, urrun nahiak hego aldera bultzatzen duen antzara.

Hegan egiten du musikak, jostorrazak begietan; hegan egiten du musikak, labana mokoan; hegan egiten du musikak, sua hanketan.

Jostorrazak begiak erauzi dizkio eta labanak ahoa zulatuta eta suak hankak erre.

Musika ari du, bihotza agerian, haragia gorrian, usaina airean.

Musika aurpegi bihurtu da eta Lopek Gabriel Cifuentes ikusi du. Tronpeta harturik badoa bere ari-maren mugaz haratago, bere gorputzaren eta bere hiriko mugaz haratago, bere buruaz haratago azken finean, hiria altzairuzko gorputza baita, hiria arima baita asfalto beroz jantzia.

Giltzak atean sartzean egiten duen soinuk iratzarri du Lope. Ohetik jaitsi da, bat-batean, zer egiten ari zela oso ongi ez jakin. Soinua datorren aldera doa, oinak airean ia, burua are aireagoan. Estropezu egin du atera iritsi baino lehen eta gorputz bigun, gorputz handi, gorputz bero eta usaintsu baten aurka jo du.

—Ez esan nire zain zeundenik, Iraurgi jauna.

Lope Andrearen irribarreaz ohartu da. Desafiozko irribarre da.

—Deitu izan bazenu lehenago etorriko nintzen. Non da Maria?

Ez dio erantzuteko astirik eman Loperi. Bazterrean utzirik, emakumea korridorean aurrera joan da, paretak oro bere haragi beltzen zurrumbileoz joz.

—Non zaude Maria? Iritsi da zure laguna! Baina, baina, zer egiten duzu hor bakarrik? Orainxe hasiko da gure festa.

Lope bere gelan sartu da. Miles Davisen diskoa jogailutik atera eta bere kutxan gorde du. Zalanza izan du ea beste diskoa ipini ala isilean geratu. Kutxa artean ibili da zabarrean. Duke Ellingtonen disko bat aurkitu du. Begira geratu zaio, ea kanten zerrendak erabakia hartzen laguntzen dion, baina ez dio ezertan lagundu. *Solitude*. Zilarrezko bakardade. Gogoeta. Barne biribilketa. Maite dut maite nire bakardadea, heriotzaren itzalak harapatzen eta heriotzaren lanbroak bustitzen eta heriotza-

ren tapakiak estaltzen didatenean. Beste kutexekin batera utzi du. Arropa garbia hartu du armairutik eta bainugelara joan da, dutxa arin eta azaleko bat hartzeko asmoz. Ura burutik behera iristaka duelarik, Mirandaren irudia etorri zaio oroimenera, egin nahi zuena ez eginarekin damuarekin batera. Zer zen egin nahi zuena? Berak ere ez daki. Zer zen egin nahi ez zuena? Berak ere ez daki. Ezjakintasunak bustitzen du, urak hainbeste. Dutzako iturria itxi du. Lehortu egin da eta arropa garbia jantzi du, beltza, barnetik eta kanpotik. Mirandaz zikindutako arropa zumezko saskian utzi du. Bainugelatik atera da, beriturik erabat. Barre hotsa dabil etxean. Egongelarraino hurbildu da, kirika egin du atetik eta Andrea eta Maria Larrañaga ikusi ditu telebistako programa bat ikusten, algaraka biak. Logelarraino irristatu da. Argazki-kamera eta dirua hartu ditu, kanpora abiatu da.

—Nora zoaz, despeditu gabe, lo-tsagaldia halakoa?

Andrea atea zaintzen dago. Sartutakoan zeraman arropa kendua du eta etxeko bata bat loredua dauka orain jantzita. Alde guztietatik txiki geratu zaion bata da, alde guztietatik larri beltzez estalitako mendi ausartek zapart egin nahi duten bata. Bular lodia, zabal eta biribilei nekez eusten diete oihalaren botoiek, eta haragi pus-kak, ilargi pus-kak balira bezala, isil-gordeka ari dira jolasten, Loperen desira eta irrikak bezala.

—Ez zintuztedan molestatu nahi.

—Zuk ez dakizu zer den molestatzea, Iraurgi jauna. Ikasi beharko zenuke.

Lope amarenganaino joan da, makurtu eta musu bat eman dio bekokian. Almendra usaina hegaldatu da.

—Ez galdu, seme.

Ez dela galduko erantzun dio Lopek. Galtzea ez da berak egin leza-keena. Galduta dabil, duela bi ur-

tetik hona. Aita bizirik zela eta etxera zetorrela jakin zuenetik hona, Luis Otegiren hilketaren lekuko izan zenetik hona. Galduta dabil, inguruan duena galdu egin baitzaio, desagertu egin baitzaio, erori egin baitzaio, harea poltsiko zuletik behera bezala. Aita, Luis, Miranda, Veronika...

—Goizean etorriko naiz, ama.

—Hire zain egongo nauk, seme.

2. Hiriko kaleak iragaiten dira, inora joateke. Lope, ordea, joan egiten da, inondik inora iragaitzke. Hiriarrenak dira bere mugak, eta bereak dira hiriarrenak. Dena zaio Loperi kale eta bide-gurutze, antzerki eta zirkua, zine-emanaldi eta zine-hartaldi, ikastegi eta erakustoki, oin-tortura eta begien atsedena, espazio itxi eta itxialdi amaigabe. Bizitoki zaio kalea eta hiltoki ere bai. Oroimenaren eta ahantziaren bi-deak dira kaleak. Oroimena bizitzak darama, arrastaka bada ere. Ahantzia hilibietan geratzen da, harriari itsatsirik. Mundu honen eta bestearen arteko zubiak dira kaleak. Abel eta Kainen galbide eta aurkibide. Abelek abizen jakinak ditu. Kainen aurpegia iluna da, moztorropean ezkutatua. Harren begiak soilik ditu Lopek ezagutzen. Hirian milaka begi daude; batzuk irekiak eta beste batzuk ez. Loperenak, gehienetan, zabalik egon ohi dira. Nekez zaizkio argizuziok itzaltzen. Geltokiaren ondoko plazara begiratu du. Tabernak jendez husten hasi dira eta kanpoan geratu diren gizonak galduta sentitzen dira. Paradisuaren mina dutenez, beste taberna batera joango dira batzuk, eta beste batera gero, erabat bakarrik eta erabat galdurik, erabat beren buruengandik aparte sentitu arte, beste batzuk balira bezala. Ez balira bezala. Mina ez zaie urrituko. Gehitu egingo zaie: sumendi, min-mendi, bihotz-mendi. Erlojuari begiratu dio, hamarrak direla ikusi du, baina, oraindik, ez ditu hamarrak jo Karmeldarreanean. Beti bezala, pentsatu du, bost minutu aurretik



Felipe Juaristi idazleak (Azkoitia, 1957) 'Ez da gaua begietara etortzen' nobela berria (Erein) plazaratuko du aurki. Hilketak batek jartzen du abian nobelako kontakizuna. Okerreko pertsona hil du ETAK, eta horrek abiada emango dio oroimenaren gupilari. Halabeharrak elkartutako eta oroitzera bultzatutako hiru pertsonaia ezagutuko ditu irakurleak: Lope, Miranda eta Gabriel.

dabil bera, munduaren aldean; edo bost minutu atzetik dabil mundua, bere aldean. Pausoa arindu du, Easo kaleko espaloitik jenderik ez dabilela ikusirik. Hamarrak jotzen dituela entzun du, Praga hotelera sarrera egin duenean.

—Ez duk hemen ikusiko, Lope —esan dio Zunzunegi jeneralak, bere uniforme gorri borludunaren talaatik so—. Duela ordu erdi bat alde egin dik. Zergatik ez haiz lehenago etorri?

Horixe galdetzen dio Lopek bere buruari, zergatik ez den lehenago etorri. Ez daki zergatik ez den lehenago etorri eta ez daki zergatik etorri den orain hotelera. Badaki zerbaitek bultzatu duela haraino, barenan duen gudari ikusezin batek. Koldarra da itxuran; ausarta, barenan. Su emango lioke barne munduari; ezpata goriaz hilko lituzke bere sentimenduak oro, bere oroitzenaren oro, bere gogoetak oro. Ihes egiten diote, ordea, kanpora. Han ezin ditu harapatu, ezin ditu suntsitu, ezin ditueerrats bihurtu.

—Ez al henkien gaur bertan itzultzekoa zenik.

Lopek ez zekien Miranda gauean itzultzekoa zenik. Mirandak ere ez zekien, lehenago berarekin egondakoan bederen, gauean itzultzeko zenik.

—Hire zain egon gaituk, Lope, emakumea taxian sartu aurretik. Hamar bat minutu, gutxienez.

Lopek badaki nahi izanez gero balukeela Miranda agurtzeko astia, baduela, emakumea agurtzeko, bera ikusteko astia ere, Costa Vasca trenan hamarrak eta hogeita hamazazpitan ateratzen baita Norteko geltokitik, Madrilra abian. Miranda ordu honetan, seguru asko, nasan izango da, eta Lopek tabernatik ikus lezake, bera ikusia izateko arriskurik gabe. Tentagarrri zaio: itzal bat ihesi doan itzala zaintzen. Zelata lana, azken finean, maitalearen lana da. Zelataria-ri, ordea, begiak berunezko bihurtzen zaizkio, eta pisuaren pisuaz erori lurrera.

—Pozik joan al da, Zunzunegi?

—Etorri zenean baino pozago, bai. Irribarre egin du Lopek.

—Tabernara noak, Zunzunegi.

—Aspaldiko lagunak zaudek han.

—Aspaldiko lagunak? Adarra jotzen ari al haiz, Zunzunegi?

—Joan eta jakingo duk.

Lope hotelean sartu da. Harre-
ra-gela zeharkatu eta tabernako atea ireki du.

—Zer, Iraurgi, izotz bila?

Esaldia baino mingarriagoak eta zaurigarriagoak hitzen atzetik etorri diren barre-zantuak izan zaizkio Loperi. Ortizen zantziek, kanoikadak dirudite eta edozein itsasontzi botako lukete behera, edozein itsasontzi ahal, baina Lope Iraurgik Ainhua itsasontzia darama bihotzean, sekula hondora joan gabea. Ortizen ondotik igararo da, hondakin artetik igaroko balitz bezala, diosalik egiteke.



JOAN CAZENAVE